

Bi hizlariak txalo beroak jaso dituzte. Eta bukatzean Herriko Etxeak aperitiba eskaini die biltzarkideei. Eta, azkenik, Trinketean naitasunezko bazkaria.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - IV - 29

Donostian, Gipuzkoa Diputazio jauregian, 1977ko apirilaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru ordezko, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, X. Aranburu, M. Atxaga, J. Berriatua, J. Estornes Lasa, J. Fernandez Setien, S. Garmendia, X. Kintana, M. Lasa, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, J. San Martin idazkari dela.

Davant, Diharce, Hiriart-Urruty, Irigaray, Larre eta Larzabal eta Oregi jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko eta martxoko batzar agiriak onartu dira.

a) HAR-EMANAK:

Argitara berri den EUSKERA, XXI (1976) zenbakia aurkeztu da.

Arantzazun, hil honen 22an, eskuarteko lanetaz zuzendaritzakoak egin zuten bileran erabili zituzten eginkizunezko gaien berri eman da: Arabako Diputazioak euskararen ofizialkidetasuna onartuz gero beste Diputazioetara jokaera bera nola zabaldu behar zen estudiatu zen. Mitxelenari aspaldi eskatua genion Hiztegegintza nola aurrera eraman edo hortarako urratu beharrezko bideak begiratu ziren. Oinatik Olakua torretxea bulego eta artxibotzat berriztatzeko jestioak. Euskararen liburu zuriaren finantziaketaren baldintzak. Piarres Charritton laguntzailea magnetofonazko bilketa lanerako Canada-tik Euskal Herrira ekartzeaz. Eta azkenik, Mikel Lasa laguntzaileak epe luzerako gertatu duen plangintza ikusi zen.

Diru laguntza eman diguten Udaletxeen zerrenda irakurri da: Gas-teiz, Urretxu, Aretxabaleta, Igorre, Azkoitia, Azpeitia, Leitza, Lemoa, Zes-toa, Aramaio, Legutiano, Baztan eta Muxika.

Diruzainaren etorri ezinaz J. L. Lizundiak eman du berri.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du. Emalle diren L. P. Peña Santiago, A. Manzanares, J. Allieres, A. Irigoyen, E. Bozas Urrutia, K. Otegi, Bco. Bilbao eta J. de Juan B.-ri eskerrak ematea erabaki da.

b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Goizeko bilkuran Villasante, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Knörr, Lafitte, San Martin, Satrustegi eta Zavala euskaltzain jaunak bil du dira.